



**Prospekzio
Soziologikoen
Kabinetea**

www.euskadi.net/ikerketa_soziologikoak



IKUSKERAK - 5

*GIZARTE OHITURAK
HIZKUNTZEN IKASKETA
EZBERDINTASUN SOZIALAK*

2012ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA

Aurkibidea

SARRERA.....	3
GIZARTE OHITURAK	7
1 - Tabakoa	8
1.1 - Erretzeko ohitura	9
1.2 - Osasunaren eta eskubideen babesa	10
1.3 - Erretzeko debekuaren gaineko jarrera	12
1.4 - EAEko Legearen aldaketaren balorazioa	14
2 - Kirola	16
2.1 - Kirola egiteko ohitura	17
2.2 - Egiten duen kirol mota	17
2.3 - Kirol lehiaketetara joateko ohitura eta maiztasuna	20
2.4 - Zein lehiaketa motetara joaten diren	22
2.5 - Jarrera bortitzak kirolean	24
2.5.1 Jarrera bortitzak egon diren kirol-ikuskizunetara joan diren	24
2.5.2 Kirolean ematen diren jokabide bortitzen larritasunari buruzko iritzia	26
2.6 - Jokabide bortitzen kausa	28
2.6.1 Eskola-kirolean	28
2.6.2 Eskolakoak ez diren lehiaketetan	30
HIZKUNTZEN IKASKETA.....	33
3 - Atzerriko hizkuntzen ezagutza	35
3.1 - Atzerriko hizkuntza nagusia	35
3.2 - Atzerriko hizkuntzak jakitearen erabilgarritasuna	36
4 - Hizkuntzen erabilera.....	37
4.1 - Atzerriko hizkuntza erabiltzeko maiztasuna	37
4.2 - Atzerriko hizkuntza erabiltzeko esparrua.....	38
5 - Hizkuntzen ikasketa	40
5.1 - Atzerriko hizkuntzen ikasketa eta motibazioa *	40
5.2 - Ikasten ari den hizkuntza ikasteko arrazoi nagusiena	42
5.3 - Atzerriko hizkuntza ikasi nahi izateko balizko motibazioa	44
EZBERDINTASUN SOZIALAK	47
6 - Gizataldeen artean dauden eskubide eta aukera ezberdintasunak.....	49
7 - Gizonen eta emakumeen arteko aldeak	52
8 - Diskriminazio sentimentua	55
9 - Biolentzia matxista	57

SARRERA

IKUSKERAK txosten hau urteroko **bildumaren bosgarrena** da, zeinaren helburu orokorra den gizon eta emakumeen jarrera edo iritzien artean aldeak hautematen diren gaien inguruko datuen bilketa.

Bosgarren IKUSKERAK honek 2011n zehar egindako ondorengo gaiei buruzko **hiru ikerketen datuak biltzen ditu**: gizarte ohiturak (tabakoa eta kirolak), atzerriko hizkuntzen ikasketa eta ezberdintasun sozialak.

Lehen bi azterketen informazio bilketa **telefono bidezko** elkarrizketen bidez egin zen, eta hirugarrengoa, ezberdintasun sozialei dagokiona, non 47. Euskal Soziometroko datuak biltzen diren, **etxean egindako** banakako elkarrizketen bidez gauzatu zen. Kasu guztietan, elkarrizketak galdesorta egituratu eta itxia erabiliz egin ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urte edo gehiagoko hiru lurraldeetako bakoitzeko biztanleriaren lagin adierazgarri bati.

Bildutako azterketen **landa-lanak data hauetan** egin ziren: gizarte ohiturei buruzko datuak urriaren 13a eta 14an bildu ziren, atzerriko hizkuntzen ikasketei dagozkienak ekainaren 21a eta 22an eta ezberdintasun sozialei dagozkienak urriaren 23a eta azaroaren 4a artean.

Elkarrizketatuen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, ausazko ibilbideak erabiliz, norbanakoak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratuz, ondoren emaitzak hiru lurraldeetako biztanleriaren arabera haztatu direlarik. Ezberdintasun sozialei dagozkien datuak 2011ko Batzar Nagusietarako hauteskundeetako boto oroimenaren arabera ere haztatu dira.

Datuak sexuaren arabera bereizturik aurkezten dira, **emakume eta gizonen guztizko emaitzak** aurkeztuz, eta **bestelako aldagaien eragina** ere neurtzen da; adina eta beste hirugarren aldagai bat, gai bakoitzaren arabera ezberdina dena:

- **TABAKOA**: erretzeko ohitura: Egunero, Noizean behin, lehen bai orain ez eta inoiz ez.
- **KIROLAK**: kirola egiteko ohitura: Zaletasun moduan, lehiaketa mailan eta ez du egiten.
- **ATZERRIKO HIZKUNTZEN IKASKETA**: Euskararen ezagutza: bai, pixka bat eta ez.
- **EZBERDINTASUN SOZIALAK**: klase soziala: erdi mailatik gora, erdi mailan edo erdi mailatik behera.

Ikerketa honen **diseinua**, emaitzen **azterketa** eta **txostenaren** idazketa Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren **Prospekzio Soziologikoen Kabineteari** dagozkio erabat.

GIZARTE OHITURAK

1 - Tabakoa

Orokorrean, emakumeek gizonak baino **gutxiago erretzen** dute: emakumeen %21ek adierazi dute *egunero* edo noizean behin erretzen dutela, gizonen %30ek egiten duten bitartean. Desberdintasuna, batez ere, 30-45 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak artean ematen da.

Gazteenen artean erretzaileen portzentajea antzekoa da, emakumeen artean erretzen dutenen portzentajea apur bat handiagoa bada ere: %37, gizonen %34aren parean. Baina kopuru hauek modu esanguratsuan aldatzen dira **30-45 urte** bitartekoak artean, non dezente gehiago diren erretzen duten gizonen emakumeen baino: 10 gizonetatik 4 inguru erretzaileak dira adin tarte horretan (*egunerokoa* edo *noizean behin*) (%39), aldiz 4 emakumetatik 1 baino ez da erretzailea (%25). **46-64 urte** bitartekoak artean, berriz ere, portzentajeak parekatu egiten dira: adin tarte horretan bai emakumeen zein gizonen %27 erretzaileak dira. Azkenik, **65 urtetik gorakoak** artean, erretzen dutela adierazten duten emakumeen portzentajea (%3) dezente txikiagoa da gizonen baino (%18).

Ezberdintasunak oso txikiak diren arren, gizonen joera handixeagoa erakusten dute *tabakoaren eragin kaltegarriak puztu egiten direla* pentsatzeko (%43, emakumeen %38ren parean); batez ere, helduen artean eta erretzaile ohien artean. Eta emakumeen hainbat espaziotan erretzearen *debekua* ezartzearen apur bat aldekoago agertu dira: *lantokietan* (%84, gizonen %77ren parean), *jatetxeetan* (%79, %74ren parean), *taberna, kafetegia, pub eta diskoteketan* (%74, %71ren parean) eta *frontoietan* (%70, %65en parean). Emakume gazteenek ez dute alde hori erakusten, baina bai gainerako adin taldeetakoak. Bestalde, ezberdintasunak nabariagoak dira erretzaileen artean: egunero erretzen duten gizon eta emakumeen artean, *lantokietan* erretzearen debekuaren alde agertu diren emakumeen portzentajea 22 puntu handiagoa da (%82) gizonen baino (%60). Eta proposatutako gainerako lekuetan, noizean behin erretzen dutenen artean, debekuaren alde agertu diren emakumeen portzentajea gizonen baino 20 puntu handiagoa da.


Emakumeen zein gizonen positiboki baloratzen dituzte EAeko tabakoaren aurkako Legearen azken aldaketak; hamarretik zortzik bi taldeetan.

1.1 - Erretzeko ohitura

ESANGO AL ZENIDAKE ZURE BIZITZAN NOIZBAIT OHIKO ERRETZAILEA IZAN ZAREN?

ADINAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
	Guztira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guztira	18-29	30-45	46-64	>=65
Bai, egunero erretzen duzu	18	32	22	23	3	24	25	32	21	13
Bai, noizean behin erretzen duzu	3	5	3	4	0	6	9	7	6	5
Orain ez duzu erretzen, baina erre izan duzu	28	13	39	39	12	33	14	16	45	56
Ez duzu inoiz erre	51	50	35	34	85	37	52	44	29	26
Ed/Ee	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N (absolutuak)	399	56	116	113	114	400	64	125	129	82



1.2 - Osasunaren eta eskubideen babesa


IRAKURRIKO DIZKIZUDAN ESALDI BAKOITZAREKIKO, ESADAZU, GEHIENBAT ADOS EDO GEHIENBAT KONTRA ZAUDEN

ADINAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
Ados direnen %	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65
TABAKOAREN ERAGIN KALTEGARRIAK PUZTU EGITEN DIRA	38	45	33	37	42	43	43	39	43	50
ERRETZEA JENDEAK DUEN ESKUBIDEA DA ETA EZ DAGO ZERTAN MUGATU	54	53	58	53	52	55	54	52	56	59
TOKI PUBLIKOETAN, ERRETZEN EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK ERRESPETATU BEHAR DIRA	92	91	90	93	94	93	95	93	96	90
N (absolutuak)	399	56	116	113	114	400	64	125	129	82

ERRETZEKO OHITURAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
Ados direnen %	Guz-tira	Egu-nero	Noi-zean behin	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez	Guz-tira	Egu-nero	Noi-zean behin	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez
TABAKOAREN ERAGIN KALTEGARRIAK PUZTU EGITEN DIRA	38	50	33	30	39	43	58	42	46	31
ERRETZEA JENDEAK DUEN ESKUBIDEA DA ETA EZ DAGO ZERTAN MUGATU	54	73	54	52	48	55	71	64	53	44
TOKI PUBLIKOETAN, ERRETZEN EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK ERRESPETATU BEHAR DIRA	92	84	89	94	95	93	87	96	95	96
N (absolutuak)	399	73	11	107	207	400	64	125	129	82



1.3 - Erretzeko debekuaren gaineko jarrera


URTEAREN HASIERAN, EUSKO LEGBILTZARRAK DROGA MENPEKOTASUN LEGEA ALDATU ZUEN ETA TOKI PUBLIKO ITXI GUZTIETAN **ERRETZEA DEBEKATU** ZUEN. ESAN MESEDEZ ERRETZEKO DEBEKUAREN ALDE A LA KONTRA ZAUDEN HONAKO TOKIETAN

ADINAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
Ados direnen %	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65
LANTOKIETAN	84	79	86	88	81	77	79	80	76	74
JATETXEETAN	79	72	81	78	81	74	78	76	71	74
TABERNETAN, KAFETEGIETAN, PUB ETA DISKOTEKETAN	74	62	71	79	80	71	70	69	73	69
FRONTOIETAN	70	59	72	69	72	65	60	67	70	56
N (absolutuak)	399	56	116	113	114	400	64	125	129	82

ERRETZEKO OHITURAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
Ados direnen %	Guz-tira	Egu-nero	Noi-zean behin	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez	Guz-tira	Egu-nero	Noi-zean behin	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez
LANTOKIETAN	84	82	89	83	86	77	60	79	80	86
JATETXEETAN	79	68	89	75	84	74	57	64	78	83
TABERNETAN, KAFETEGIETAN, PUB ETA DISKOTEKETAN	74	57	72	74	81	71	52	51	76	82
FRONTOIETAN	70	49	83	72	75	65	50	62	66	74
N (absolutuak)	399	73	11	107	207	400	93	26	130	151



1.4 - EAEko Legearen aldaketaren balorazioa


HILABETE BATZUK INДАРREAN EGON ONDOREN, ZURE USTEZ EAEN TABAKOAREN KONTRAKO LEGEA EZARTZEA, OSO POSITIBOA, POSITIBOA, NEGATIBOA EDO OSO NEGATIBOA IZAN DA?

ADINAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
%	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65
Oso positiboa	25	14	25	30	26	21	20	20	27	15
Positiboa	56	60	55	60	52	59	62	60	55	59
Negatiboa	12	19	14	6	12	12	13	12	9	13
Oso negatiboa	2	2	4	1	0	3	2	4	5	1
Ed/Ee	5	5	3	3	10	5	3	3	4	12
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N (absolutuak)	399	56	116	113	114	400	64	125	129	82

ERRETZEKO OHITURAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
%	Guz-tira	Egu-nero	Noi-zean behin	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez	Guz-tira	Egu-nero	Noi-zean behin	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez
Oso positiboa	25	12	28	26	29	21	6	18	26	28
Positiboa	56	51	61	57	57	59	53	58	58	63
Negatiboa	12	28	11	7	8	12	29	6	8	5
Oso negatiboa	2	2	0	4	1	3	8	18	1	0
Ed/Ee	5	6	0	5	5	5	4	0	7	4
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N (absolutuak)	399	73	11	107	207	400	93	26	130	151



■ Oso positiboa ■ Positiboa ■ Negatiboa ■ Oso negatiboa ■ Ed/Ee

2 - Kirola

Emakumeek **kirol gutxiago egiten dute** gizonezkoek baino: emakumezkoen %54k egiten dute kirola zaletasun moduan edo lehiaketa mailan, gizonezkoen %65en parean. Adina kontutan izan ezker ezberdintasunak areagotu egiten dira: gazteen artean (18-29) emakumeen %54k kirola egiten duten bitartean, gizonezkoen %80k egiten dute; gainera, kirol-lehiaketa mailan soilik emakumezkoen %4k egiten dute kirola, eta portzentaje hori %17ra igotzen da gizonezkoen artean adin tarte horretan. Adinean gora goazen neurrian, ezberdintasunak txikiagotu egiten dira: 30-45 urte bitarteko artean emakumezkoen %52k egiten dute kirola eta gizonezkoen %66k; 46-64 urte bitartean emakumezkoen %62k eta gizonezkoen %68k, eta 65 urte baino gehiagoko artean emakumezkoen %46k eta gizonezkoen %45ek.

46-64 urte bitartean kirola egiten duten emakumeen portzentajeari arreta jartzea merezi du (%62), adin talde horretakoak baitira kirola gehien egiten duten emakumeak. Gizonezkoen artean, aldiz, zaletasun moduan kirola egiten dutenen portzentajea nahiko egonkor mantentzen da, apur bat gora eginez, 65 urte arte, baina lehiaketa mailan kirola egiten duten gizonen portzentajea txikitu egiten da.

Ezberdina da ere gizon eta emakumeek egiten duten **kirol mota**:

- o Emakumezkoek gehien egiten duten kirola *oinez ibiltzea* da (%45), atzetik datoz *gimnasia edo aerobica* (%24), *igeriketa* (%17), *txirrindularitza edo bizikleta* (%14), *mendira joatea* (%12) edo *yoga, pilates edo taichia* (%11). Gainerako kirolak emakumezkoen %10ek baino gutxiagok egiten dituzte.
- o Aldiz, gizonezkoek gehien egiten duten kirola ere *oinez ibiltzea* den arren (%23), proportzio txikiagoan egiten dute, eta kirol horren atzetik, oso gertu, datoz *mendira joatea* (%22), *txirrindularitza edo bizikleta* (%18), *atletismoa edo korrika egitea* (%17), *futbola* (%16) eta *igeriketa* (%12). Gainerako kirolak gizonezkoen %10ek baino gutxiagok egiten dituzte.

Emakumezkoak **gutxiago joaten dira kirol-lehiaketak ikustera**, eta joaten direnek maiztasun askoz gutxiagorekin egiten dute: emakumezkoen %58 inoiz ez dira joaten kirol-lehiaketetara, aldiz, %19 dira maiz joaten direnak (gutxienez hilabetean pare bat aldiz); gizonezkoen artean, berriz, %37 dira inoiz joaten ez direnak, eta %37 dira maiz joaten direnak kirol-lehiaketak ikustera.

Kirol-lehiaketak ikustera joaten direnen artean, emakumezkoak gehiago joaten dira **eskoletakoak diren kirol-lehiaketak** ikustera gizonezkoak baino (%44, gizonezkoen %34ren parean), eta gutxiago eskoletakoak ez diren eta sarrera ordaindu behar ez den lehiaketetara (%39, gizonezkoen %52ren parean) eta sarrera ordaindu behar denetara (%45, gizonezkoen %57ren parean).

Azken urtean, kirol-lehiaketaren batetara joan direnen artean, **gutxiago dira eraso mota hauen testigu izan diren emakumezkoak**: *publikoak kirolariei egindako hitzezko erasoak* (%44, gizonezkoen %62ren parean), *publikoaren arteko hitzezko erasoak* (%38, gizonezkoen %50en parean), *kirolarien arteko hitzezko erasoak* (%29, gizonezkoen %47ren parean), *publikoaren arteko eraso fisikoak* (%10, gizonezkoen %18ren parean), eta *kirolarien arteko eraso fisikoak* (%23, gizonezkoen %32ren parean). Pentsa liteke honek talde bakoitza ikustera joaten den lehiaketa motarekin harremana duela: emakumezkoak gehiago eskoletakoak diren lehiaketetara eta gizonezkoak gainerakoetara.


Dena dela, bai emakumezkoentzat zein gizonezkoentzat, kirol-lehiaketetan ematen diren jarrera bortizak arazo oso larria edo nahikoa larria dira; zertxobait larriagoa emakumezkoentzat, baina portzentaje nahiko antzekoan, %90 inguru. Bi taldeek ere, antzeko arrazoiak ikusten dituzte jarrera hauen atzean: *heziketarik eza* eta *kirolarien gurasoen agresibitatea* eskola-lehiaketen kasuan, eta *heziketarik eza, fanatismoa* eta *agresibitatea* gainerakoetan; emakumezkoek garrantzia apur bat gehiago ematen badiote ere *heziketa ezari* gizonezkoek baino.

2.1 - Kirola egiteko ohitura

KIROLA EGITEN DUZU?

ADINAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
	Guztira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guztira	18-29	30-45	46-64	>=65
Bai, zaletasun bezala	53	50	52	62	46	61	63	63	67	45
Bai, kirol-lehiaketa mailan	1	4	0	0	0	4	17	3	1	0
Ez du kirola egiten	46	46	48	38	52	35	20	34	32	55
Ed/Ee	0	0	0	0	2	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N (absolutuak)	399	56	116	113	114	400	64	125	129	82



2.2 - Egiten duen kirol mota

ZEIN KIROL EGITEN DUZU GEHIEN?*

ADINAREN ARABERA


2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65
Oinez ibili	45	14	32	55	63	23	3	8	34	57
Gimnasia, aerobica	24	22	27	20	27	6	1	8	5	11
Igeriketa	17	20	15	15	20	12	15	10	11	13
Txirindularitza, bizikleta	14	26	18	17	0	18	17	23	20	6
Mendira joatea	12	13	12	15	9	22	11	17	32	22
Yoga, pilatesa, taichia	11	2	13	15	8	1	0	0	1	3
Atletismoa, korrika egin	7	22	13	2	0	17	14	26	14	6
Tenisa	3	0	8	3	0	4	5	3	4	1
Futbola	2	4	5	0	0	16	40	20	4	0
Saskibaloia	2	8	3	0	0	3	3	8	0	0
Eskia	1	4	0	2	0	2	4	4	0	0
Golfa	1	0	2	0	2	1	0	0	1	1
Pilota	0	0	1	0	0	7	9	8	8	3
Beste bat	4	8	7	2	1	6	11	8	3	0
Ed/Ee	0	0	0	1	0	1	0	2	1	0
N (absolutuak)	217	30	61	72	54	262	51	83	89	39

* Galdera hau bai zaletasun bezala bai kirol-lehiaketa mailan kirola egiten dutenei soilik egin zaie (erantzuleen %59a)
Batuketara ez da 100 bi erantzun arte aipatu ahal zirelako

KIROLA EGITEKO OHITURAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak			Gizonak		
	Guztira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Guztira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan
Oinez ibili	45	45	0	23	25	0
Gimnasia, aerobica	24	24	0	6	7	0
Igeriketa	17	17	0	12	12	0
Txirindularitza, bizikleta	14	15	0	18	20	0
Mendira joatea	12	12	0	22	23	7
Yoga, pilatesa, taichia	11	11	0	1	1	0
Atletismoa, korrika egin	7	7	0	17	17	14
Tenisa	3	3	0	4	3	7
Futbola	2	1	50	16	13	52
Saskibaloia	2	1	50	3	3	10
Eskia	1	1	0	2	2	0
Golfa	1	1	0	1	1	0
Pilota	0	0	0	7	8	0
Beste bat	4	4	0	6	4	24
Ed/Ee	0	1	0	1	2	0
N (absolutuak)	217	215	2	262	246	16

* Galdera hau bai zaletasun bezala bai kirol-lehiaketa mailan kirola egiten dutenei soilik egin zaie (erantzuleen %59a)
Batura ez da 100 bi erantzun arte aipatu ahal zirelako



2.3 - Kirol lehiaketetara joateko ohitura eta maiztasuna

ZENBATERO JOATEN ZARA KIROL-LEHIAKETAK IKUSTERA?


ADINAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
%	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65
Astero	12	9	21	11	6	21	24	19	29	9
Gutxienez hilabeteetan bitan	7	6	10	9	3	15	19	15	16	12
Hiruhilabeteetan zehar baten batean	9	15	14	9	3	13	18	20	4	12
Maiztasun gutxiagorekin	13	16	14	13	12	13	16	12	14	12
Inoiz ez	58	53	40	59	76	37	23	34	36	54
Ed/Ee	0	0	0	0	0	1	0	0	1	1
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N (absolutuak)	399	56	116	113	114	400	64	125	129	82

KIROLA EGITEKO OHITURAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak				Gizonak			
%	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten
Astero	12	13	50	11	21	22	55	16
Gutxienez hilabeteetan bitan	7	9	0	5	15	18	14	11
Hiruhilabeteetan zehar baten batean	9	12	0	7	13	14	17	11
Maiztasun gutxiagorekin	13	19	50	7	13	16	14	8
Inoiz ez	58	48	0	70	37	29	0	55
Ed/Ee	0	0	0	0	1	1	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
N (absolutuak)	399	215	2	180	400	246	16	138

Maiz joaten direnen % (astero + gutxienez hilabetean bitan)



2.4 - Zein lehiaketa motetara joaten diren

KIROL-LEHIAKETAK IKUSTERA JOAN OHI ZARA...?

ADINAREN ARABERA


2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
Joan ohi direnen %	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65
ESKOLETAKOETARA	44	31	50	41	49	34	19	37	41	34
ESKOLETAKOAK IZAN GABE, SARRERA ORDAINDU BEHAR EZ DIRENETARA	39	38	41	41	28	52	42	54	57	49
ESKOLETAKOAK IZAN GABE, SARRERA ORDAINDU BEHAR DIRENETARA	45	46	43	44	49	57	58	58	62	45
N (absolutuak)	172	27	72	47	26	249	50	83	80	36

* Galdera hau soilik kirol-lehiaketak ikustera joaten direnei egin zaie (biztanleriaren %52)

KIROLA EGITEKO OHITURAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak				Gizonak			
Joan ohi direnen %	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten
ESKOLETAKOETARA	44	44	0	46	34	35	14	37
ESKOLETAKOAK IZAN GABE, SARRERA ORDAINDU BEHAR EZ DIRENETARA	39	40	100	33	52	53	41	53
ESKOLETAKOAK IZAN GABE, SARRERA ORDAINDU BEHAR DIRENETARA	45	47	50	39	57	61	63	48
N (absolutuak)	172	113	2	57	249	171	16	62

* Galdera hau soilik kirol-lehiaketak ikustera joaten direnei egin zaie (biztanleriaren %52)



2.5 - Jarrera bortitzak kirolean

2.5.1 Jarrera bortitzak egon diren kirol-ikuskizunetara joan diren

JOAN ZARA AZKEN URTEAN HONAKOAK EGON DIREN KIROL-LEHIAKETETARA?

ADINAREN ARABERA


2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
"Bai" erantzun dutenen %	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65
PUBLIKOAK KIROLARIEI HITZEZKO ERASOAK	44	61	41	44	33	62	71	62	60	50
PUBLIKOAREN ARTEKO HITZEZKO ERASOAK	38	44	37	41	27	50	58	45	53	44
KIROLARIEN ARTEKO HITZEZKO ERASOAK	29	45	23	32	21	47	46	52	43	44
PUBLIKOAREN ARTEKO ERASO FISIKOAK	10	0	12	8	15	18	24	17	14	20
KIROLARIEN ARTEKO ERASO FISIKOAK	23	22	20	21	39	32	46	29	25	38
N (absolutuak)	399	56	116	113	114	400	64	125	129	82

* Galdera hau soilik azken urtean kirol-lehiaketak ikustera joan direnei egin zaie (biztanleriaren %48).

KIROLA EGITEKO OHITURAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak				Gizonak			
"Bai" erantzun dutenen %	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten
PUBLIKOAK KIROLARIEI HITZEZKO ERASOAK	44	45	100	41	62	59	93	59
PUBLIKOAREN ARTEKO HITZEZKO ERASOAK	38	37	0	41	50	50	63	47
KIROLARIEN ARTEKO HITZEZKO ERASOAK	29	30	100	24	47	47	66	41
PUBLIKOAREN ARTEKO ERASO FISIKOAK	10	10	0	9	18	16	22	21
KIROLARIEN ARTEKO ERASO FISIKOAK	23	27	50	15	32	33	56	25
N (absolutuak)	399	215	2	180	400	246	16	138

* Galdera hau soilik azken urtean kirol-lehiaketak ikustera joan direnei egin zaie (biztanleriaren %48).



2.5.2 Kirolean ematen diren jokabide bortitzen larritasunari buruzko iritzia


ZEIN MAILATARAINO USTE DUZU ONDOKO JOKABIDEAK LARRIAK DIRELA?

ADINAREN ARABERA

2011ko azaroa		Emakumeak					Gizonak				
%		Guztira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guztira	18-29	30-45	46-64	>=65
HITZEZKO ERASOAK	Oso larriak	60	50	63	61	61	49	28	51	60	46
	Nahikoa	30	35	32	30	27	35	51	35	28	35
	Gutxi	4	15	2	3	2	12	14	13	8	13
	Batere ez	1	0	1	0	1	1	4	0	1	0
	Ed/Ee	5	0	1	5	10	3	4	0	3	7
ERASO FISIKOAK	Oso larriak	79	81	77	83	75	74	74	75	79	63
	Nahikoa	16	16	20	13	15	18	21	18	18	17
	Gutxi	2	3	2	1	2	4	4	5	1	7
	Batere ez	0	0	0	0	0	1	0	1	0	4
	Ed/Ee	4	0	1	4	8	3	0	1	1	9
ERASO KEINUAK	Oso larriak	60	47	58	67	62	50	30	52	62	43
	Nahikoa	31	35	36	30	24	36	51	34	30	35
	Gutxi	3	13	3	0	2	11	16	12	6	13
	Batere ez	0	2	0	0	0	0	2	0	0	0
	Ed/Ee	5	2	2	3	11	4	2	1	3	10
KIROLEAN DAGOEN INDARKERIA OROKORREAN	Oso larriak	68	57	69	71	70	66	57	71	68	61
	Nahikoa	24	38	26	23	18	24	39	19	25	17
	Gutxi	2	2	3	0	3	7	4	8	3	12
	Batere ez	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0
	Ed/Ee	5	3	1	5	9	4	0	2	4	9
Ehuneko berfikalak		100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N (absolutuak)		399	56	116	113	114	400	64	125	129	82

KIROLA EGITEKO OHITURAREN ARABERA

		Emakumeak				Gizonak			
		Guztira	Zaleta- sun moduan	Lehia- keta mai- lan	Ez du egiten	Guztira	Zaleta- sun moduan	Lehia- keta mai- lan	Ez du egiten
HITZEZKO ERASOAK	Oso larriak	60	61	50	59	49	52	20	47
	Nahikoa	30	28	50	34	35	35	38	35
	Gutxi	4	6	0	2	12	9	35	14
	Batere ez	1	1	0	1	1	1	7	0
	Ed/Ee	5	5	0	5	3	3	0	3
ERASO FISIKOAK	Oso larriak	79	79	100	78	74	79	65	67
	Nahikoa	16	16	0	16	18	16	28	22
	Gutxi	2	2	0	1	4	3	7	5
	Batere ez	0	0	0	0	1	1	0	2
	Ed/Ee	4	3	0	5	3	2	0	4
ERASO KEINUAK	Oso larriak	60	63	50	57	50	51	31	50
	Nahikoa	31	30	0	33	36	37	52	30
	Gutxi	3	3	50	3	11	8	18	15
	Batere ez	0	0	0	1	0	0	0	0
	Ed/Ee	5	4	0	6	4	3	0	4
KIROLEAN DAGOEN INDARKERIA OROKORREAN	Oso larriak	68	68	50	68	66	65	76	65
	Nahikoa	24	25	50	24	24	23	18	25
	Gutxi	2	2	0	2	7	8	7	5
	Batere ez	0	0	0	1	0	0	0	0
	Ed/Ee	5	5	0	5	4	4	0	5
Ehuneko berfikalak		100	100	100	100	100	100	100	100
N (absolutuak)		399	215	2	180	400	246	16	138



2.6 - Jokabide bortitzen kausa

2.6.1 Eskola-kirolean

ZURE USTEZ, ZEINTZUK DIRA ESKOLAKO KIROL-LEHIAKETETAN HORRELAKO EKINTZA BORTITZAK EGON DAITEZEN ARRAZOI GARRANTZITSUENAK?

ADINAREN ARABERA


2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65
Heziketarik eza	37	21	31	48	40	30	23	36	29	29
Kirolarien gurasoen agresibitatea	24	19	29	32	15	26	21	29	30	17
Gehiegizko lehiakortasuna	13	20	17	10	8	11	19	11	7	10
Ingurukoek ekintzekin kutsatzea	8	9	8	7	9	12	11	13	10	13
Hedabideen eragina	3	6	4	2	3	6	8	6	8	1
Kirol-epailearekiko errespeturik eza	2	2	3	1	2	3	0	3	4	3
Kirol ikuskizunarekin identifikazioa	2	4	1	1	2	1	2	1	1	1
Beste batzuk	5	5	5	4	7	8	9	9	4	12
Ed/Ee	4	5	2	2	6	7	7	9	4	10
N (absolutuak)	399	56	116	113	114	400	64	125	129	82

* Portzentajeen batura ez da 100, bi erantzun eman ahal zirelako.

KIROLA EGITEKO OHITURAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak				Gizonak			
	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten
Heziketarik eza	37	33	50	42	30	29	20	33
Kirolarien gurasoen agresibitatea	24	27	0	22	26	31	24	17
Gehiegizko lehiakortasuna	13	14	0	12	11	10	17	11
Ingurukoek ekintzekin kutsatzea	8	8	50	9	12	14	7	9
Hedabideen eragina	3	3	0	4	6	7	7	4
Kirol-epailearekiko errespeturik eza	2	1	0	3	3	3	0	4
Kirol ikuskizunarekin identifikazioa	2	1	0	3	1	1	0	2
Beste batzuk	5	3	0	8	8	6	21	10
Ed/Ee	4	3	0	5	7	6	21	8
N (absolutuak)	399	215	2	180	400	246	16	138

* Portzentajeen batura ez da 100, bi erantzun eman ahal zirelako.



2.6.2 Eskolakoak ez diren lehiaketetan

ZURE USTEZ, ZEINTZUK DIRA ESKOLAKOAK EZ DIREN LEHIAKETETAN HORRELAKO EKINTZA BORTITZAK EGON DAITEZEN ARRAZOI GARRANTZITSUENAK?

ADINAREN ARABERA


2011ko azaroa	Emakumeak					Gizonak				
	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65	Guz-tira	18-29	30-45	46-64	>=65
Heziketarik eza	30	21	30	34	31	24	14	32	24	21
Fanatismoa	19	22	19	20	16	18	20	14	17	24
Agresibitatea	16	19	14	18	14	14	13	17	15	10
Ingurukoek ekintzekin kutsatzea	8	10	8	8	8	10	9	9	13	10
Gehiegizko lehiakortasuna	5	12	7	4	2	7	11	7	9	1
Hedabideen eragina	2	0	4	3	1	7	9	6	7	3
Beste batzuk	12	7	16	13	8	10	6	16	9	6
Ed/Ee	9	7	13	7	7	8	4	12	8	5
N (absolutuak)	399	56	116	113	114	400	64	125	129	82

Batuketa ez da 100 bi erantzun arte aipatu ahal zirelako

KIROLA EGITEKO OHITURAREN ARABERA

2011ko azaroa	Emakumeak				Gizonak			
	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten	Guz-tira	Zaletasun moduan	Lehiaketa mailan	Ez du egiten
Heziketarik eza	30	26	50	34	24	21	21	31
Fanatismoa	19	19	0	19	18	19	17	16
Agresibitatea	16	16	0	16	14	18	0	9
Ingurukoek ekintzekin kutsatzea	8	7	50	10	10	11	14	8
Gehiegizko lehiakortasuna	5	6	0	6	7	6	20	7
Hedabideen eragina	2	3	0	2	7	9	7	2
Beste batzuk	12	11	0	13	10	10	21	9
Ed/Ee	9	10	0	8	8	8	21	7
N (absolutuak)	399	215	2	180	400	246	16	138

Batuketa ez da 100 bi erantzun arte aipatu ahal zirelako



HIZKUNTZEN IKASKETA

Atzerriko **hizkuntzen ezagutza antzekoa** da gizonezkoen eta emakumezkoen artean, 65 urtetik gorakoen artean izan ezik, non apur bar gehiago diren atzerriko hizkuntzaren bat ezagutzen duten gizonezkoak; adin tarte horretan emakumezkoen %21ek atzerriko hizkuntzaren bat ezagutzen dutela diote, eta 9 puntu altuagoa da hori bera dioten gizonezkoen portzentajea (%30). Antzekoa da ere, gizonezkoek eta emakumezkoek duten hautematea atzerriko hizkuntzaren bat jakitearen garrantziaz, eta baita zein maiztasunez eta zein esparrutan erabiltzen duten ezagutzen duten atzerriko hizkuntza.

Atzerriko **hizkuntzen ikasketari** dagokionez, gizonezkoen eta emakumezkoen artean antzekoa da egun atzerriko hizkuntzaren bat ikasten ari direnen (%7 eta %8, hurrenez hurren) eta ikasi nahiko luke-tenen portzentajea (%72 eta %77, hurrenez hurren).

Atzerriko hizkuntzaren bat **ikasteko motibazioa** baina, zertxobait ezberdina da emakumezkoen eta gizonezkoen artean: atzerriko hizkuntza bat ikasten ari diren emakumezkoen erdia baino gehiagok (%53) diote euren motibazio nagusia *hizkuntzak ikastea atsegin dutela* besterik ez dela, eta bigarren lekuan, herenak diote *lanerako edo/eta ikasketetarako* behar dutelako egiten dutela (%36). Aldiz, egun hizkuntza bat ikasten ari diren gizonezkoen artean, ia erdiek (%45) diote *lanerako edo/eta ikasketetarako behar dutelako* egiten dutela, eta hamarretik bik baino ez dute egiten *atsegin dutelako* (%23).

Zentzu berean, gaur egun bai gizonezkoen bai emakumezkoen gehiengoak ez da atzerriko hizkuntzarik ikasten ari, baina ikasi nahiko lukete, batez ere *beste herrialde batzuetara bidaiatzeko* (%39 bi taldeetan); zertxobait gehiago dira *atsegin dutelako* ikasiko luketen emakumezkoak (%32, gizonezkoen %25en parean), eta zertxobait gehiago dira *lanean gora egiteko* ikasiko luketen gizonezkoak (%22, emakumezkoen %13ren parean).

3 - Atzerriko hizkuntzen ezagutza

3.1 - Atzerriko hizkuntza nagusia

ATZERRIKO HIZKUNTZA NAGUSIA EDO GARRANTZITSUENA... *


